

Abenduaren 22an
ABENDUALDIKO IV. IGANDEA (A)
Caritas erakundearen jardunaldi berezia

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Itxaropena otoitz bihurtzen da Abendualdiko laugarren igande honetan: Jaunari Semea bidal diezagula eskatzen diogu.

Eguberri aurreko igande honetan, urtero bezala Caritas, elizaren erakundeak gogora dakartza behartsuak, goiburu honekin: *“Gabonetan IZAN ZAITEZ gure konpromisoaren partaide”*. Gogoan izango dugu asmo hau otoitzean eta diru-bilketa berezian. Behartsuei harrera ona eginez, Kristo onartzeko prestatzen gara.

Damu-otoitza

Senideok: itxaropen aldian aurrera goaz. Mariaren antzera Jaunaren etorrerarako prest egon nahi dugu. Aitor ditzagun apalki gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitzen.

— Jesus Jauna, ilunpetan bizi direnei argi egitera zatozen munduko argia: erruki, Jauna.

— Jesus Jauna, zeure artaldea egiaren eta zuzentasunaren bidetik eramatera zatozen Artzain Ona: Kristo, erruki.

— Jesus Jauna, aitaren agintzariak bernen betera eramateko, egun batean itzuliko zaren Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Otoitza

**Isur ezazu, Jauna, gure bihotzetan zeure grazia;
eta egizu, aingeruak esanik
zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunok,
haren nekaldi eta gurutzearen bidez,
iritsi gaitzela piztueraren ospera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Egun hauetako iragarki guztien erdian, Jainkoaren Hitzak gure bihotzera iritsi nahi du, Mesiasi buruzko ezaugarriak eta bizikizunak kontatuz. Jainkoak bete du bere promesa Jesus guri gerturatuz, orain guri dagokigu Berari jarraituz erantzutea.

Homiliarako argibideak

Jainkoa gurekin

Gaurko irakurgaiek egia handiaren aurrean jartzen gaituzte: Jainkoa gertuko Jainkoa da, gure historian barneratzen den Jainkoa, gurekin-Jainko dena. Exodo liburuko Jainkoa: “dena”, “dagoena” herriaren mina ikusi eta askatzen duena. Horixe da Salbatzailearen izena: Jesus, “Jainkoa salbatzaile da” esan nahi duena.

Hori sinesteak ez ote luke gure bizitza, gure itxaropen moldea aldatu behar? Ez ote litzateke antzeman behar guran hori sinesten dugula? Ez ote genuke barrua Jainkoaren “bakeaz eta graziaz” bete eduki behar, Paulok erromatarrei esan dien eran?

Maria, Espirituak bete

Mariarengan betetzen da, Mateok esan bezala, Isaiasen profetia: birjinak haurra izango du, Jainkoa-gurekin den Semea.

Eta, Mariaren ondoan Jose ageri da, herriko langilea, apala, ona, Jaunaren etorreraren zain gaudenontzat eredu aparta.

Josek, fededun leial denez, onartu egiten du Jainkoaren asmoa, nahiz eta hasiera batean bere asmoekin bat ez etorri, eta nahiz eta dena ondo ulertu ez. Mariaren ondoan esaneko izatearen poza agertzen du. Merezi du Jainkoaren asmoak geure asmo egitea. Merezi du Jaunaren etorrera itxaropenez prestatzea. Isabelek Mariari esandakoak balio du Joserentzat ere: “zorionekoa zu sinetsi duzulako”.

Gabonetan IZAN ZAITEZ gure konpromisoaren partaide

Mariarengan eta Joserengan bezala, Eguberriaren itxaropenak besteenganako arreta pizten du guran ere. Lehenik eta behin geu garen dohainaz jabetuz: denok jaso dugu dohain bat, denok gara dohain bat besteentzat zabalik egon behar duena. Jainkoa gure bidera atera da, gure bila ari da, gutaz baliatu nahi du mundu hau salbatzeko. Dohaina bezala, misiorako deia ere jasotzen dugu, bidaliak gara, hor dago bokazioa, besteei begira jartzen gaituena.

Kristauak ezin du bizi bere buruari begira, baizik eta zerbitzua, arreta, zaintza... bihurtzen ditu bere eginkizun, bere izateko modu. Caritasek arretarako jarrera hau esnarazi nahi digu. Eguberri atariko deialdi hau ez da behartsuentzat gure limosna eskatzeko bakarrik, gure elkarteak elkarte itxaropentsu izan daitezen elkarlana bideratzeko baizik. Izan gaitezke harrera oneko elkarte, elkarrekin otoitz egiten duen elkarte, bizitza partekatzen duen elkarte, testigantza ematen duen elkarte, askatzaile den elkarte, Jainkoaren Erreinuaz maiteminduta dagoen gizon eta emakumeen elkarte. Hori da Caritasen konpromisoa kristau elkarte osoaren konpromiso bihurtzea. Hori da gure dohainak denen zerbitzura jarriz eta justiziaren eta karitatearen alde lan eginez mundua hobetzen saiatzea. Gure otoitza, gure bizitza, gure dena gizon-emakume guztien itxaropenak eta kezkek aintzakotzat harturik bizitza.

Eukaristian ogia eta ardoa bere Espirituz beteko dituen Jainkoak, Maria bete zuen Espiritu berak bete gaitzala gu guztiok ere. Eguberriaren axalkeria guztien gainetik, Espirituak bere graziaz bete nahi gaitu Maria bete zuen eran, guk ere Jesus gure inguruan txertatu dadin eta presente egon dadin, sumatua izan dadin, lan egin dezagun.

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska dezagun, senideok, Jaunaren laguntza, bere errukiz mundura etor dadin eta salbamena ekar diezagun

Erantzuna: Zatoz, Jauna, gu salbatzera!

— Fededun guztiak prest egon daitezen Mariak bezala Kristo onartzeko eta hark bezala Bere hitzak bihotzean gordetzeko. Egigun otoitz. R/.

— Fedetik urrundu arren Eguberriak ospatzen dituzten gure senideek aurki dezatela Ebanjelioko berri ona, ez ilunpetako argi-izpi bezala bizitza osoa argitzen eta alaitzen duen argi iraunkor eta eder bezala baizik. Egigun otoitz. R/.

— Jaunaren Jaiotza ospatzea gerta dadila zalantzan daudenentzat argi eta barne-minez bizi direnentzat babes eta laguntza. Egigun otoitz. R/.

— Caritasek gaur gogoratzen dizkigun behar guztiak aintzat har ditzagula, gure eguneroko bizitza, eta bereziki Eguberritako festak neurritsu antolatzerakoan. Egigun otoitz. R/.

Jainko Jauna, zure maitasunaren doantasuna eta indarra agertu dituzu zure Seme giza haragiz janzteko Mariaren erraiak aukeratu dituzunean; entzun gure erreguak eta egizu guk ere jakin dezagula zure Hitza onartzen eta ernearazten, Berari entzunez eta Haren esaneko izanez. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristiaren liturgiari oharpena (*Diru-bilketa egiterakoan*)

Gogoratu gaurko diru-bilketa gure parrokiako Caritasen beharretarako izango dela. Izan gaitezen eskuzabalak.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jainko ahalguztiduna,
betiko biziaren agiria harturik, hau eskatzen dizugu:
zenbat eta hurbilago izan salbameneko jaia
presta gaitezela hainbat eta gartsuago
zure Semearen jaioteguna fede-jarreraz ospatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bukaerako oharpena

Aste honetan egin diezaiogun otoitz bereziki Ama Mariari: «erakutsiezaguzu Jesus, zure sabaleko Seme bedeinkatu hori» esanez. Jesus onartuz, gizon-emakume guztiei bihotza irekitzen jakin dezagula.

22 de diciembre
DOMINGO IV. DE ADVIENTO (A)
Jornada especial de Caritas

Saludo

El Señor que viene a salvarnos esté con todos vosotros.

Monición de entrada

La esperanza se hace oración en este cuarto domingo de Adviento: pedimos al Señor que nos envíe a su Hijo.

En este domingo previo a la navidad, como cada año, la institución eclesial Caritas nos recuerda a los más necesitados, con este lema: *“Esta Navidad SÉ PARTE de nuestro compromiso”*. Recordamos esta intención en la oración y en la colecta especial. Acogiendo bien a los necesitados, nos preparamos para acoger a Cristo.

Acto penitencial

Hermanos: avanzamos en este tiempo de esperanza. Como María queremos estar dispuestos para la venida del Señor. Confesemos humildemente nuestros pecados, para que seamos dignos de celebrar los sagrados misterios.

— Luz del mundo, que vienes a iluminar a los que viven en las tinieblas del pecado: Señor, ten piedad.

— Buen pastor, que vienes a guiar a tu rebaño por las sendas de la verdad y la justicia: Cristo, ten piedad.

— Hijo de Dios, que volverás un día para dar cumplimiento a las promesas del Padre: Señor, ten piedad.

Dios todopoderoso tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados, y nos lleve a la vida eterna.

Oración colecta

**Derrama, Señor, tu gracia en nuestros corazones,
para que, quienes hemos conocido, por el anuncio del ángel,
la encarnación de Cristo, tu Hijo,
lleguemos, por su pasión y su cruz,
a la gloria de la resurrección.
Por nuestro Señor Jesucristo tu Hijo,
que vive y reina contigo en la unidad del Espíritu Santo
y es Dios por los siglos de los siglos.**

Monición a la liturgia de la palabra

En medio de todos los anuncios que nos rodean estos días, la Palabra de Dios quiere llegar a nuestros corazones, hablándonos sobre el Mesías. Dios ha cumplido su promesa acercándonos a Jesús, ahora nos corresponde responder siguiéndole.

Sugerencias para la homilía

Dios con nosotros

Las lecturas de hoy nos ponen ante el gran día: Dios es un Dios cercano, un Dios que se adentra en nuestra historia, que es Dios-con-nosotros. El Dios del libro del Exódo es “el que es”, “el que está” el que ve el dolor de su pueblo y lo libera. Ese es el nombre de nuestro Salvador: Jesús, que significa “Dios es salvador”.

¿Crear eso no debería de transformar nuestra vida hacia la esperanza? ¿No se nos debería de notar que creemos en eso? ¿No deberíamos de tener nuestro interior lleno de la “paz y la gracia” de Dios, como pedía san Pablo a los romanos?

María, llena del espíritu

En María se cumple, como indica Mateo, la profecía de Isaías: la virgen dará a luz y tendrá un hijo que será Dios-con-nosotros.

Y junto a María vemos a José, un humilde trabajador, bueno, ejemplo vivo para quienes esperamos la venida del Señor.

José, como buen creyente acoge la voluntad de Dios, aunque no la entienda, aunque en un primer momento no coincida con sus intenciones: muestra su alegría de obedecer junto a María, de ser fiel como ella. Es bueno hacer nuestra la voluntad de Dios. Merece preparar con esperanza su venida. Las palabras de dijo Isabel a María, valen también para José: “dichoso por haber creído”.

Esta Navidad SÉ PARTE de nuestro compromiso

Como en María y José, la esperanza de la Navidad suscita en nosotros una actitud de atención hacia los otros. En primer lugar, siendo reconociendo el don que somos: todos hemos recibido un don, todos somos un don que ha de estar abierto hacia los demás. También Dios a salido a nuestro encuentro, nos busca y quiere valerse de nosotros para salvar este mundo. Junto al don recibimos la llamada a la misión: somos enviados, eso es la vocación que nos pone mirando a los demás.

El cristiano no puede vivir mirándose a si mismo, sino que hace del servicio, de la atención, del cuidado... su tarea, su modo de ser. Caritas quiere encender en nosotros esta actitud de atención. Esta jornada previa a la Navidad no es solo para pedir nuestra limosna para los necesitados, sino para que nuestras comunidades sean mas esperanzadas e impulsen más el trabajo en comunidad. Podemos ser comunidades acogedoras, comunidades que recen juntas, comunidades que comparten la vida, comunidades que den testimonio y resulten liberadoras, comunidades de hombres y mujeres enamorados del Reino de Dios. Eso es tratar de mejorar el mundo poniendo nuestros dones al servicio de todos y trabajando por la justicia y la caridad. Nuestra oración, nuestra vida, todo lo tenemos que vivir atentos con las esperanzas y las inquietudes de los hombres y mujeres.

El Espíritu de Dios que en la Eucaristía llena el pan y el vino, y que colmó también a María, derrame su gracia sobre nosotros. Para que, en estas Navidades, vivamos llenos de su fuerza, por encima de toda superficialidad, igual que María, para que trabajemos a favor de que Jesús esté presente en todas las realidades que nos rodean.

Oración de los fieles

Pidamos, hermanos, la ayuda del Señor, para que lleno de misericordia venga al mundo y nos traiga la salvación.

Respuesta: ¡Ven Señor Jesús!

- Para que todos los fieles se dispongan a recibir a Cristo como lo recibió María y como ella conserven sus palabras en el corazón. Oremos. R/.
- Para que nuestros hermanos que aun alejados de la fe celebran la navidad, descubran la buena noticia del Evangelio, no como un rayo fugaz en la noche, sino como luz permanente que ilumina y alegra toda la vida. Oremos. R/.
- Para que las fiestas del nacimiento del Señor sean luz para quienes dudan y amparo y ayuda para quienes viven sumergidos en el sufrimiento. Oremos. R/.
- Para que vivamos atentos con las necesidades que Caritas nos recuerda, tanto en nuestra vida cotidiana, como a la hora de preparar con moderación la fiesta de la navidad. Oremos. R/.

Señor Dios, que has mostrado la gratitud y la fuerza de tu amor eligiéndolas entrañas de María para encarnar a tu Hijo, escucha nuestras plegarias y haz que también nosotros acojamos tu Palabra escuchándola y cumpliéndola. Por Jesucristo nuestro Señor.

Monición a la liturgia eucarística *(Al hacerse la colecta)*

Recordad que la colecta que hacemos ahora será para las necesidades de Caritas de nuestra parroquia. Seamos generosos.

Oración después de la comunión

**Dios todopoderoso,
después de recibir la prenda de la redención eterna,
te pedimos que crezca en nosotros tanto fervor
para celebrar dignamente el misterio del nacimiento de tu Hijo,
cuanto más se acerca la gran fiesta de la salvación.
Por Jesucristo nuestro Señor.**

Monición final

Esta semana recemos de forma especial a María, pidiéndole: «muéstranos a Jesús, fruto bendito de tu vientre». Recibiendo a Jesús, aprendamos a abrir nuestro corazón a todos los hombres y mujeres.